

Jon Abril

«EB-Aralar koalizioak gehiengo osoak ekiditen lagunduko du»

(Bera, 1975). Kazetaritzan eta herri mugimenduan aritua. Aralarreko koordinatzaileordea eta Berako alkateordea da: “Udal kudeaketa esker onekoa da, polita, baina gogorra ere bai. Beran eta Nafarroan, oro har, ogasun arazoan ondorioz udalen egoera ekonomikoa txarra da. Politika nahi bezala garatu ahal ez izateak herritarrekin konfrontazioa sortzen du batzuetan, eta gogorra da hori” adierazi digu. Maiatzeko udal eta foru hauteskundeaz jardun dugu bereziki: NaBai-z eta EB-Berdeak-Aralar koalizioaz. Normalizazio politikoaz ere ikuspuntu interesgarriak eskaini dizkigu.

Mikel Asurmendi

Argazkiak: Dani Blanco

Ez zaio samurra izan ia lau urteko udalgintza Jon Abrili, gustura dago haatik: “Kritika politikoa jasotzea normala eta beharrezkoa da. Gogorrena, adibidez, herritarrek –auzo-koek eta lagunek– egindako eskaerak ukatzea da. Bakoitzak berea ikusten du, baina udal funtzionamendua barnetik ezagututa bestela ikusten da”.

Kanpaina gogorra jaso zuen hasieran Jon Abrilek ezker abertzalearengandik, Aralarren aurka bereziki eta bere kontra ere bai: “Denboraren poderioz giza harremanen parte bezala hartzen duzu politikagintza. Egoera normalduz doa poliki-poliki, hala ere”. Ibilbide horretan *Kotto* herrikide presoaren heriotza ezagutu zuten beratarrek: “Horrelako egoerak mikatzak dira, baina Beran ‘ongi’ moldatu ginen une mingarri hartan”.

Zergatik ari zara politikan?

Herri mugimenduan aritu naiz eta horrek bultzatuta iritsi naiz politikara. Politika, funtsean, kudeaketa da. Euskal Herria herri mugimendutik eta eguneroko politika landuz eraiki behar da, biak beharrezkoak dira politika egiteko.

Nafarroako foru hauteskundeak hizpide. Zertan da Nafarroa Bai (NaBai)?

Lana oso aurreratuta dago. 50 udal baino gehiagotan izanen dira NaBairen hautagaiak. Bertze hamarren bat udaletan aukera handiak daude koalizioa osatzeko. Iruñerriko udal guztietan aurkeztuko da, Sakanan ere bai. Ilusioa ikaragarria da. Jendeak aldaketa etor daitekeela sentitzen du, orain arte ez zegoen alternatiba dagoela.



BATASUNAREN SU-ETEN ESKAERA ETA AUTONOMIAREN ESKAINTZA

“Autonomiarena harriduraz hartu dugu”

BATASUNAK ETARI SU-ETENA ESKATU DIO: Aurrerapausoa da. Ez nahikoa, baina aurrerapausoa da. Barajaskoa ezin da inondik inora justifikatu. ETak bere hitza jan du, historikoki hitza bete du eta orain balore hori galdu du, sinesgarritasuna kendu dio edozein su-eten motari. Su-etena indarrean dagoela esan du ETak, baina zer sinesgarritasun emanen diogu? Su-etena ez da atentatuen arteko epea. Su-etena indarkeriarik gabeko garaia izatea da eta une honetara iritsita behin betirakoa.

BATASUNAREN AUTONOMIA ESTATUTU ESKAINTZA: Harriduraz hartu dugu. Batasunak Aralarri egin dion kritiketako bat da autonomistak izatea nolabait. Guk egur aunitz jaso dugu horregatik. Segiren pegatina batean Miguel Sanz eta Patxi Zabaleta daude, biak autonomistak direla erranez. Gatazkaren oinarrietako bat hori izan da, eta bat-batean, duela lau urte Aralarren antzeko jarretara horren gordinki etortzeak harritu gaitu. Baina harriduraz harago joanez, eskaintza errealismo politikoan kokatu behar da, guk positiboki baloratu dugu. Orain ikusteko dago berek sinesten duten, eta, batez ere, baseek bat egiten duten nahi horrekin.

Zer egiten du nafar batek EAEko politikagintzan?

Ez naiz EAEko politikan ari den nafarra, Hegoalde osorako egitura duen alderdi bateko burua baizik.

Bake eta normalizazio bidean, Aralarrek armak behin betiko uzteko eskatu dio ETari. Raxoik, berriz, Aralarrek esaten duenari kasu egiteko gomendatzen dio Zapaterori. Paradoxikoa ote?

Mariano Raxoientzat Aralar oso urrun dago. Hori da gutaz duen erreferentzia bakarra, gure ezaugarri bakarra balitz bezala. Errepublikatzearen poderioz gailentzen den erreferentzia bakarra, ETaren jarduna kritikatzeko duen ezker abertzaleko jendearen eskaera delako. Baina hori baino aunitzez gehiago da Aralar. Batetik, ezker eraginkorra izan nahi duen alderdia da, Nafarroan nahiz EAEn. Horren bila hitzarmenak bideratu dituen eta dagoen instituzioetan herri mugimenduari ahots ozena eman diona. Presentzia txikia dugu: Nafarroako Parlamentuan 4 legebiltzarkide, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Eusko Legebiltzarrean ordezkari bakarra eta 60-70 zinegotzi. Baina politika egiteko beste modu bat lantzen ari gara. Mariano Raxoiri politika egiteko beste modu bat dagoela esango nioke, eta ikas dezala gomendatuko nioke.

EB-Aralar koalizioa, PSEren eta EEren bigarren edizioa dela diote batzuek. Konparazioak gorrotagarriak dira eta kasu honetan gehiago. “Euskadiko Ezkerra bezala bukatuko duzue” esa-

ten dute zenbaitek. EB-Aralar bakoitzaren ezberdintasunaren arabera koalizioa da, garai honetarako egina. ETaren su-eten garaian diseinatzeko hasia, eta su-etena apurtuta ere balio berbera izaten jarraitzen duena.

Zergatik eta zertarako koalizioa?

Euskal Herriak ezker eraginkorra eta eraldatzailea behar du, ezkerrearen hutsune handienetako bat ezkerre

“EBkoak federalistak dira eta gu independentistak. Baina biok herri honen etorkizuna erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen dugu: erabakimen librea”

sakabanatuta egotea da. Koalizioak egoera hau aldatu nahi du, ezkerreko politika herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetara eramateko, alegia, udaletara eta batzar nagusietara. Ezkerreko politika justizia sozialean oinarritzeko, azpiegitura handiekiko kritika eraikigarria egiteko eta bakean oinarrituta gizarte bat osatzeko asmoz sortu da koalizioa.

EB-Aralar koalizioa politikaren parameetroak bestelakoak zirenean hasi ziren mamitzen. Zein neurrian eragin du Barajasko atentatuak?

Abenduaren 30eko atentatuaren ondoren koalizioa ez da zalantzan egon, ez

EBren aldetik ez Aralarren aldetik. Bi alderdiek irakurketa bera egin genuen atentatuaz, hau da, inoiz baino beharrezkoagoa da bakearen alde elkarrekin jardutea, are zentzu gehiago du atentatua eman zen moduan eman zelako.

Koalizioa osatzeko arazoak ez bide dira ideologikoak, sentimenduzkoak baizik: kultur jite ezberdinak eta aurreiritziak... Horrela al da?

Bai. Baita etxe barruan ere. Aralarren sentsibiltate ezberdinak daude eta horiek errespetatu eta ondo kudeatu behar dira. Normala da neurri batean, baina hori ere koalizioaren alde baikoarra da. Koalizioa abertzale eta abertzale ez diren artekoa da, bakoitzaren diferentziak kontuan hartuak eraikia. EBkoak federalistak dira eta gu independentistak, baina biok ala biok herri honen etorkizuna erabakitzeke eskubidea defendatzen dugu: erabakimen librea. Hau da azpimarratu behar dena. Eskubidea erabiltzerakoan erabaki ezberdina hartuko dugu, guk independentzia haiek federalismoa. Baina eguneroko lanetan, gai aunitzetan ezkerreko politika lantzean kointzidentzia asko dugu.

Koalizioaren hautagaien %70 EBrenak dira eta Aralarrenak %30. Aralarren helburua %50 ordezkatzeko omen zen.

Ez. Ez da horrela. Koalizioa osatzeko geure errealtateak kontuan hartu ditugu. Aralar hagitz alderdi txikia da, EBk hainbat lekutan bikoiztu egiten du Aralar. Eguneroko presentzian baino boto kopuruan da gehiago EB, hala ere. Egoera parekatuena Gipuzkoakoa da. Azken hauteskundetako emaitzak kontuan hartuz, EBren ordezkartza %55 da eta gurea %45. Gipuzkoan parekotasun horren bila aritu gara. Araba eta Bizkaian gure presentzia eta bozka tikiagoa izanik, hautagaien kopuru hori zegokigula ulertu dugu.

Arabian ez duzue antza, alderdikideen oniritzia jaso.

Arabian arazoak izan direla esan dugu argi eta garbi, bertako kideek ez zutelako koalizioa osatzea egokia ikusten. Alderdiaren gehiengoak bestela ikusi du ordea. Hegoaldeko batzarrari zegokion erabakia hartzea eta %90eko onepenenarekin onartu zuen koalizioa osatzea Araban ere. Kongresuan ere ildo ofizialak %89ko babesa jaso zuen.



“Batasunak hauteskundeetan egotea nahi dut, bere izenarekin gainera”.

Zuzendaritzak interpretatu du nahiko babes dagoela koalizioa hiru lurraldeetan osatzeko.

Gipuzkoako herri guztietan ez dago koalizioa erabakita, Arrasaten eta Aretxabaletan, kasu.

Herrietan tokian tokiko batzordeek erabaki behar dute. Koalizioaren prozesua horregatik luzatu da. Bi alderdiek herriz herri lan egin behar izan dute, gure egituretan emandako erabakiak onartu eta EBrekin adostu. Udal batzuk alderdiaren batzar nagusiaren erabakitik kanpo geratu dira, bertako

batzordeen erabakiak errespetatu dira, eta zenbait herritan —Debagoienean, adibidez— kandidaturak oraindik itxi gabe daude, batzorde lokalak eztabaidan ari direlako.

Herri mugimenduaren dinamikan aritua zara. Aldarrikapen eta borroka ugari daude esparru horretan: AHT, errauskailuak...

Lan handia dago egiteko alor horretan, herri mugimenduan ari den jende askok frustrazioa jaso du. Ezkerrak ez du herri mugimenduko eskaera horiei erantzuten jakin.

Ezkerreko sektore horien laguntza eta botoa jasotzeko aukerarik bai?

Bai. Esaterako, Zutik alderdiak hainbat herritan atxikimendua emanen dio koalizioari, Zutik-eko jendea ere joanen da zenbait zerrendatan. Badago beste sektore bat ere, aurrerakoia, orain arte boto praktikoa eman duena, EAJ-EA koalizioari bereziki. Horiek ere erakartzen saiatuko gara.

EAJ-EA koalizioa ez da oraingoan aurkezten. Aldaketa horrek nola eragin dezake?

Horrek leku gehienetan ahalik eta gehiengo osoak saihesten lagundu lezake. EB-Aralar koalizioaren helburuetako bat gehiengo absolutuak ekiditea da, beste bide politiko bat garatzeko aukera eman lezakeena.

Nola nahiko zenuke Batasuna aurkeztea udal eta foru hauteskundeetan?

Batasunak hauteskundeetan egotea nahi dut, bere izenarekin gainera. Bai EB bai Aralar Alderdien Legearen aurka gaude. Euskal Herriko gizar-tearentzat eta demokraziarentzat onena Batasuna hauteskundeetan egotea da, baita EB-Aralar koalizioarentzat ere.

Azkenik, nola daramazu “ezker abertzalea” terminoa?

Hitzekin joko handia egiten da, guk ez dugu ezker abertzalea terminoa gehiegi nabarmendu nahi, Batasunak bere egiten duen edo ez... Guk ezkerrekoak eta abertzaleak garela azpimarratu nahi dugu, politika abertzale eta ezkerrekoa landu nahi dugu. Ez dut izenen saltsa gustuko, garrantzizkoa edukian dago eta. **n**

